PAISAIARI BURUZKO NIRE LEHENENGO INPRESIORAKO FITXA

Fitxa hau bertatik bertara betetzeko pentsatua dago, ez paisaia baten argazki batetik abiatuta. Bere xedea honakoa da: edonork paisaia jakin baten eraldaketarako eragileen inguruan gogoeta egin dezan laguntzea, inolako ezaguera tekniko berezirik izan gabe[1].

Lehendabiziko bi orrialdeek fitxa nola bete azaltzen dute, eta hirugarren orrialdeak fitxa du.

Paisaiaren eskala panoramikoa izaten da tontorretatik begira. Egilea: Miren Askasibar

Atal honetan aztertzen diren gaien inguruan paisaiek izan ditzaketen hainbat ezaugarri proposatzen dizkizugu fitxan, eta **ezaugarri** bakoitza deskribatzeko lau **adjektibo**, aztertutako paisaiari hobekien egokitzen zaizkienak aukeratzeko.

Adibidez, paisaiaren **eskalari** dagokionean, bailara txikiak eskala goxoa izango du, eta goi-mendietako larre zabaletako paisaia aztertu bada, aldiz, eskala panoramikoa izango da.

Aniztasunari dagokionean, elementu gutxi eta haien artean berdintsuak dituen paisaia uniformea izango da, eta osagai desberdin asko baditu, konplexua izango da, ordea.

Ehunduraren kontzeptua ulertzeko harea fineko hondartza bat eta harribilez estalitako hondartza bat konparatzean pentsa dezakegu; lehenengoak ehundura fina izango du, eta bigarrenak pikortsua. Paisaiak ere badu ehundura; adibidez, larre batek ehundura fina izango du sagasti batekin alderatuz.

Zelaien ehundura fina basoen ehundura pikortsuarekin konbinatzen duen landa paisaia. Egilea: Miren Askasibar

Koloreen dibertsitatea ere baliozta daiteke; izan ere, badira hainbat paisaia non kolore bakar bat nagusitzen den (esaterako, aurreko adibideko larrea), eta oso koloretsuak diren paisaiak.

[1] Lan hau ondoko lizentziak babesten du: Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 4.0. Fitxa hau Miren Askasibarrek egin du, aurretik PAISAIA enpresan burututako lan batetik abiatuta.

Tamaina, forma, eta koloreen batasunak sentsazio harmoniatsua igortzen laguntzen du. Kasu honetan, gainera, eraikinek duten altuera lehen planoarekin alderatuz eskala atsegina sortzen da. Egilea: Miren Askasibar

Oreka eta **proportzioari** dagokionez, batzuetan paisaiaren osagaiak harmoniaz nahastu direla irudituko zaigu; beste batzuetan, elementuek batzuk besteekiko ordenarik ez dutelako itxura kaotikoa sortuko dute.

Paisaiek **mugimenduaren sentsazioa** transmititzen dute ere; gurutzatzen diren hainbat errepide eta trafiko bizia dituen hiri baten sarrera gorabeheratsua irudituko zaigun artean, batere mugitzen ez den zekale sail zabala duen paisaia barea irudituko zaigu.

Paisaiak adierazten duen **segurtasun** maila garrantzitsua da ere; amildegi handia duen tokia arriskutsua izango da batzuen ustez, eta denda eta etxebizitza ugari dituen eta zoko ezkuturik ez duen hiri-paisaia erosoa izango da.

Azkenik, **lasaitasuna** eta bakardadearen arabera paisaiak zalapartatsuak izango dira jendez eta soinuz beteta badaude, edo urrutikoak inolako azpiegiturarik edo gizakirik sumatzen ez bada inguruan.

Bista irekia duen kale batek, pertsonek eta ibilgailuek zeharkatua eta denda irekiak dituena, pertsona gehienei segurtasuna emango die. Egilea: Miren Askasibar

Fitxa bete dutenen izen-abizenak:				
Data:				
Tokia:				
PAISAIARI BURUZKO NIRE LEHENENGO INPRESIOA				
1. Orokorrean, nolakoa iruditzen zaizu bistan duzun paisaia?				
☐ Oso atsegina	☐ Atsegina	☐ Nahiko atsegina	☐ Ez oso atsegina	☐ Batere atsegina ez
2. Gogoeta errazago egin ahal izateko, paisaiak izan ditzakeen ezaugarri batzuk adierazten dizkizugu, eta ezaugarri bakoitza deskribatzeko adjektibo ezberdinak.				
EZAUGARRIA	HAINBAT ADJEKTIBO AUKERAN (AUKERATU EGOKIENA)			
Eskala	☐ Goxoa	☐ Txikia	☐ Zabala	☐ Panoramikoa
Aniztasuna	☐ Uniformea	☐ Sinplea	☐ Dibertsoa	☐ Konplexua
Ehundura	☐ Leuna	☐ Pikorduna	☐ Pikor lodikoa	☐ Pikor oso lodikoa
Kolorea	☐ Kolorebakarra	☐ Motela	☐ Koloretsua	☐ Bizi-bizia
Oreka eta proportzioa	☐ Harmoniatsua	☐ Orekatua	☐ Bat ez datorrena	☐ Kaotikoa
Mugimendua	☐ Barea	☐ Lasaia	☐ Arina	☐ Gorabeheratsua
Segurtasuna	☐ Erosoa	☐ Segurua	☐ Beldurgarria	☐ Arriskutsua
Lasaitasuna eta bakardadea	☐ Urrutikoa	☐ Lasaia	☐ Pixka bat zaratatsua	☐ Zalapartatsua